

Goiz-argi

Zuzendaritza:

J. A. Garate Umanus
PP. Franciscanos. TOLOSA

Banategi ta diru-eragintza:

Goiz-argi
Calle Guetaria, 21-bajo
SAN SEBASTIAN

IRARKOLA: Aranztazu

Deposito legi: S. S. 1078-1959

1971 - EKAINA - XII URTEA - 138'g'a. - ZENB.

ataria

politika, bai

POLITIKA esan dut, ez politikakeria. Eta politika esatean, benetako errigintza, esan nahi dut: erriko seme ta alaba bakoitza, gizatalde on ta librea, gizatasuna osora eramateko erriak berak eta bere ordezkariak egin bear duten lana. Alako politika ez da jolas bat, ez alboratu leiken kapitxu bat; alako politika naita nai-ez gizapersonak bizkar gabean bear dun zama utzi-ezinezkoa dugu.

Badabil ontaz gure artean amaikatxo kezka. Gure kristau-taldean artean, alegia. Eta leero auen bitartean argitasun batzuk zabaldu nahi dizkiet gaur. Zergatik? Kristau-taldeetatik politika utxatu egin bear dala, diote batzuk. Errexeji ari dira izketa ortan, lasaigo egin oi da lo, ala pentatzu. Baña egin dezagun ots: kristau-talde batek politika egin bearra dauka! Begira:

1) Kristau-alkargoaren OÑARRIA badakigu zertan dagon.

2) Kristau-alkargoa gerez, gure gidari dan Kristo gizon galduen bila etorri dala ez dugu ahaztuko. Zapalduenak, galduen! Orregatik, kristau-alkargoa zapalduen alde itzuliko da, baña egirik eta zimentatuniki inoiz saildu gabe. Ortarako justizi osoz egingo dan legedi zuzena sortuerazteko, aspertzeko, borrokatuko da.

3) Kristau-alkargoa Jainko-semeen askatasuna bidetzat artu dun taldea izango da. Orregatik, egiazko askatasuna gizartearen galdu ez dedin, alegiak egiten ditu. Eta ditadurazko agintaritzat bat inazorako ez du inolar ere onizat artuko, ez gorririk, ez zirik. Utzi gizonari gizon izaten!, ots-egingo du itzez eta egitez.

4) Kristau-alkargoak ez du erria lider baten mendean maitzotuta ikusi nai, ezta bakatasun eta bakoizkerian sakabanatuta ere. Kristok era-

ki bear duala, esango du.

5) Kristau-alkargoa, Kristo Buru bakar baten gorputz bat dala jakinik, guztion berdintasunaren eredu ta eskale izango da errian. Bakoitzaren askatasuna ta nortasuna errespetatuz, berdintasun orlortzen aleganduko da; ez arrazak, ez klaseak, ez erlijioak deseindu bear ez duan berdintasuna, alegia.

6) Kristau-alkargoak —Kristo Argiarengandik datorrelako— agiri-agirik politika garbia maiteko du. Eta azpilana ta ixileko saildukeri ta trapak gorroto izango ditu. Erriari dagozkien arazo guztien berri osoa jakiteko eskubidea ots-egingo du. Eta sekreto-zale dan agintaritarik ez du onizat artuko.

7) Kristau-alkargoak bada-ki bere indarra Jainkoaren itzarengandik datorrela. Eta, orregatik, ondo ibiltzen dan itz guztiari ere errespetu aundia izango dio. Ortik, erriaren itzarentzat eta alkar-izketa jatorrentzat askatasun osoa naike ta eskatuko du. Eta gizarteke itza lotu, ixilduerazi ta zigorkatzea, pekatu aundizat salatuko du.

8) Kristau-alkargoak bada-ki, bere Buru Kristok erakutsita, gure gizarteke egiteko ez dala inor menderatzea, gizartearen serbitzua egitea baiarik. Betor indarra, bañan tamarñan ta neurri justuetan bakarrik, gizataldearen eskubideak galdu ez ditezen. Baña utikan indarra, indarra dala-ko, ifloren eskubide sakratuak kentzeko ta deseintzeko danean!

9) Kristau-alkargoak bada-ki —jakin bear du— mundu guztiko gizadia anaizat artu bear duala. Orregatik ez da bere barruan sartuta, bere buruari ta aberriari bakarrik begira egongo. Eta inguruko arraza, erri ta gizataldeekin bear diran alkartasun on guztiak egiten erakutsiko dio bere jendeari ta erriari.

Alako politika baten alde egin dezagun lan, Zar ta gazte, erriaren egizko on len-dabizko elburuztat arturik eta bata-besteart eskua emanaz.

AITA AGIRRETXEK

KEZKA BERRIAK



Orain urtebete inguru, Aita Agirretxe'k euskal-elmakumen "ez" bi salatu zitun GOIZ-ARGI ALDIZKARIAN: Mojatari, ez. Baserrira ezkintzeari, ez. Orduko nere zuzpertzeta emakumearen alderakoa izan zan. Nola di-teke mojatarako gogoia, oraingo gaztedia igitzen dan giroak ez du ba, emakumearen biotzean got-maitasunaren sua ixiotzeko txi-garrik?

Nola di-teke baserriko alabak baserrira ez-kontzeko gogoia izan, bere amaren eta amonaren bizkera latsaren berri ondo jakinda? Ez biak errex aizen nitun.

Zenbait idatzi irakurri ondoren, irakurri orduko aitu oi ditugu. Beste zenbait ordea, gogoan betiko itaxatita gelditzen zaizkigu. Onela gelditu zitzaidan Aita Agirretxe'ren salate au gogoan. Baña zenbait eta geiago orotun, orduan eta beste "ez" geiago arkitzen dituen euskal-emakumeagan. Eta bat beintzat salatu nai det nik ere: euskal-emakumeak, eskeraz irakurteari, ez.

Asko dira, bai, emakume euskeldun artean, euskerazkoa irakurten zaleak; baña askozaz geiago irakurten ez dituenak. Batzuk: "nik ez dakit euskeraz irakurten". Besteak: "nik ez det irakurteko astirik". Besteak beste aitziki bat... eta nai; arpidetuak izan, euskerari laguntzearen euraik dituenak, GOIZ-ARGI; ZERUKO ARGIA; AGUR; eta beste geiago, inork irakurri gabe gelditzen dira etxean. Emakumeak irakurri gabe beintzat.

Euskal-emakunea, euskeldun ez danaren, eta euskotar ere ez dana, beste batzuetara zaletua dago; erderazko aldizkari arin, printzesen aundikeri, aberats aundien arrokeri, zinek zenbait "izar"-en ezkintze, nabarmenkeri, ta beste "keri" guztien zabal-tzale diran oietara.

Ze diruzteke eramaten dituzten aldizkari oiek gure arteki emakumeak emandal Zer onuragarri date irakurri abek, beste guz-tiak alde bat utzita berengana lotzeko?

Amak aldit entzun dago, sendiaren euskal sendoena emakunea dala, len orrela izango zan, baña gaur ezin genezake esan au baiatu; gutxiago eusko-giroan iramgo duan sendiaren euskai.

Mojatari ez... Baserrira ezkintzeari ez... Euskel giroari ez...

Baño... baño... zer egiten degu euskeraz, emakume gaztearen biotzean eusko-gogoaren sua ixiotzeko?

Tolosako errore izan zan On Patritzi Orkaiztegi jaunak esan omen zuan, euskerak luzeran gaitzen duan aneurkin edo metro bakoitzeko, fedeak luzetabalean gaitzen duala metro ori.

Nik ez dakit Orkaiztegi jaunak fedeak euskerari lotu zion, edo euskerari fedeak. Ez da gauza bera. Baña elkarrekin dfojaz galbidean. Eta fede ta euskerak gabeko sendia, sendi izateki urrutit geldituko da. Euskel sendi izateki beintzat. Baña emakunea sendiaren euskal sendoena baldin ba'da itxartu zaitte emakune gazte ori, ta skin ikurriz onekin:

NI EUSKEL-SENDIARENTZAT, ETA EUSKEL-SENDIA JAUNGOIKOARENTZAT.

TENE



GIZATASUN OSOA artu duan Jainko-Seme artan, Gizatasuna, gizon osoa, Orri begiratu bear dio kristau-taldek. Gauzak, erakundeak ta munduari ezarritako katramalla guztiak onak dituzte, giza-persona ori osozkeko ba-dira, Ortarako ez ba-dira, jo gaitzotzat eta kaltegarritzat.

kutsita, bada-ki batasuna bear dala errian. Baña batasun ori, alkar-izketari eta danon arteko ardurakizunari eraginaz lotu bear dala ere bada-ki. Buru bakarreko nagusitzari gorroto izango dio, Eta agintaritzat nork eta nola eraman, nai aundi baten inguruan exeritako erri elduak eraba-